

bertsoaroa 2013

notas

- Entrada libre.
- Para el acceso a los actos programados en la sala del Instituto de la Plaza de la Cruz se deberán recoger invitaciones en la misma sala desde una hora antes del comienzo de cada actuación.

actuación de **bertsolaris**-

24 de octubre, jueves. 20:00

Sala del Instituto de la Plaza de la Cruz

Bertsolaris: Julio Soto, Odei Barroso, Erika Lagoma, Beñat Gaztelumendi, Alaia Martin y Eneko Lazkoz

Presentadora: Alaitz Rekondo

El ciclo Bertsoaroa 2013 comenzará con la actuación de seis jóvenes bertsolaris que ya cuentan con una gran experiencia y trayectoria. Como muestra de ello cabe destacar que durante los últimos años han sido finalistas de los Campeonatos de Bertsolaris de Navarra, Xilaba y Gipuzkoa. Junto a los navarros Julio Soto, Erika Lagoma y Eneko Lazkoz, serán el labortano Odei Barroso y los guipuzcoanos Beñat Gaztelumendi y Alaia Martin los protagonistas del evento. Dirigidos por la habitual presentadora del ciclo Alaitz Rekondo, la actuación contará con la visión personal de cada bertsolari en torno a temas de actualidad, temas en clave de humor...

conferencia

29 de octubre, martes. 19:30

Civivox Iturrama

Campeonato Absoluto de Bertsolaris, de Lujanbio (1935) a Lujanbio (2013). *En euskara.*

Xabier Paya Ruiz

¿Cuándo se organizó por primera vez el Campeonato Absoluto de Bertsolaris? ¿Por qué se organizó? ¿Quién ha sido el bertsolari que más txapelas ha ganado? ¿Cual ha sido la temática dirigida a los bertsolaris?

A través de esta conferencia, el bertsolari e investigador Xabier Paya tratará de responder a todas estas cuestiones. Así mismo, relatará diversos pasadizos en torno a las diferentes ediciones que ha tenido esta expresión cultural a lo largo de su historia.

actuación de **bertsos y música**

5 de noviembre, martes. 20:00

Sala del Instituto de la Plaza de la Cruz

Ez gara Palestinaz ari (*No hablamos de Palestina*)

Bertsolaris: Unai Muñoa y Ander Lizarralde

Músicos: Imanol Kamio y Aitor Atxega

Somos hábiles para hacer una lectura política y social del mundo que nos rodea así como para juzgar al prójimo. ¿Pero, acaso reparamos en nosotros mismos? ¿Compartimos nuestros miedos, complejos, deseos...?

No son cantantes pero cantan, no son actores pero actúan, no son guionistas pero han preparado un guión... Los cuatro protagonistas tratarán de mostrar lo que realmente son, desnudándose ante el público: del miedo a la valentía, de la mente a la emoción, de la hombrada a la hombría, del ridículo al humor...

Se trata de una actuación en la que se unirán los bertsos, el piano, el acordeón y la guitarra, para mostrar los sentimientos que experimentamos todos y confesar las verdades sin tapujos, sin mentiras.

actuación de **bertsolaris**-

7 de noviembre, jueves. 20:00

Sala del Instituto de la Plaza de la Cruz

Bertsolaris: Maddi Sarasua, Nerea Ibarzabal, Amaia Iturriotz, Mikel Lasarte, Irati Majuelo y Egoitz Gorosterrazu

Presentador: Joseba Beltza

La edición de este año cuenta una vez más con la cita ineludible de la actuación de bertsolaris jóvenes. A pesar de que la mayoría no llega a los veinte años, todos cuentan con una importante experiencia tanto en campeonatos y certámenes como en actuaciones gracias a la labor desarrollada en las escuelas de bertsolarismo a las que todos asisten. Junto con el cambio generacional, son cada vez más las mujeres que actúan en público, tal y como se muestra en esta ocasión. Será Joseba Beltza, bertsolari y presentador experimentado, el que guíe a los seis jóvenes.

actuación de **música**

12 de noviembre, martes. 20:00

Sala del Instituto de la Plaza de la Cruz

Igelaren Banda

Batería: Hasier Oleaga

Guitarra: Bixente Martinez

Contrabajo: Amaur Cajaraville

Igelaren Banda surgió hace unos doce años editando su primer disco en el año 2000. Después de un parón entre 2008 y 2011, el grupo ha vuelto con una nueva formación. Bixente Martinez, Hasier Oleaga y Amaur Cajaraville, componentes de esta banda, toman como base la música tradicional, creando nuevas versiones instrumentales con arreglos y armonizaciones.

Siendo ésta una actuación principalmente instrumental, serán igualmente importantes tanto las explicaciones sobre las canciones como la improvisación musical.

actuación de **bertsolaris**-

14 noviembre, jueves. 20:00

Sala del Instituto de la Plaza de la Cruz

Bertsolaris: Maialen Lujanbio, Jon Maia, Xabier Silveira, Amets Arzallus, Fredi Paia y Julen Zelaieta

Presentadora: Ainhoa Aranburu

Para finalizar el ciclo de este 2013, la polifacética presentadora Ainhoa Aranburu dirigirá la ya clásica actuación de los bertsolaris más punteros. Siendo ésta la época del Campeonato Absoluto de Bertsolaris, la actuación contará con la campeona de 2009 Maialen Lujanbio y dos finalistas, Jon Maia y Amets Arzallus. Junto a ellos estará Fredi Paia, finalista del último Campeonato de Bertsolaris de Bizkaia y los bertsolaris navarros Xabier Silveira y Julen Zelaieta. Ambos improvisadores de gran nivel y ganadores del Campeonato de Navarra. El hilo conductor de esta actuación será el humor, la provocación, los juegos de palabras, los temas de actualidad...

bertsoaroa 2013
urriaren 24tik azaroaren 14ra



bertsoaroa 2013

oharrak

- Emanaldi guztiak doan dira.
- Gurutzeko plazako Institutuko aretoko emanaldietarako, gonbidapena aurkeztu beharko da.
- Gonbidapenak Aretoan bertan banatuko dira emanaldia hasi baino ordu bete lehenagotik

bertso-saioa

Urriak 24, osteguna. 20:00

Gurutzeko Plazako Institutuko Aretu Nagusia

Bertsolariak: Julio Soto, Odei Barroso, Erika Lagoma, Beñat Gaztelumendi, Alaia Martin eta Eneko Lazkoz

Gai-jartzailea: Alaitz Rekondo

Sei bertsolari gaztek emango diote hasiera 2013ko Bertsoaroa zikloari. Ibilbide handikoak guztiak, azken urteetan Nafarroa, Xilaba eta Gipuzkoako Bertsolari Txapelketetan finalistak izan dira. Julio Soto, Erika Lagoma eta Eneko Lazkoz nafarrekin batera, Odei Barroso lapurtarra eta bi gipuzkoar arituko dira taula gainean, Beñat Gaztelumendi eta Alaia Martin. Alaitz Rekondo esperientzia handiko aurkezlea gidari dutela, gaien trataera sakonak zein umoretsuak, bertsokera landuak eta kantakera bereziak entzuteko parada bikaina eskainiko digu saioak.

hitzaldia

Urriak 29, asteartea. 19:30

Civivox Iturrama Zentroa

Bertsolari Txapelketa Nagusia,
Lujanbiotik (1935) Lujanbiora (2013)

Xabier Paya Ruiz

Noiz antolatu zen Bertsolari Txapelketa Nagusia lehen aldiz? Zergatik antolatu zen? Nork irabazi du txapel gehien? Zer motatako gaiak jarri izan zaizkie bertsolariei? Hitzaldian, Xabier Paya bertsolari eta ikerlaria, galdera horiek guztiak eta zenbait gehiago erantzuten saiatuko da, baita Euskal Herriko ahazkotasunaren adierazpide esanguratsuenetako baten olinpiaden pasadizo ugari kontatu ere.

emanaldi berezia

Azaroak 5, asteartea. 20:00

Gurutzeko Plazako Institutuko Aretu Nagusia

Ez gara Palestinaz ari

Bertsolariak: Unai Muñoz eta Ander Lizarralde

Musikariak: Imanol Kamio eta Aitor Atxega

Abilak gara munduaren gaineko irakurketa politiko eta sozialak egiten, bai eta bizilagunak epaitzen ere, baina, erreparatzen al diogu geure barne munduari? Partekatzen al ditugu gure benetako izuak, konplexuak, minak, desioak...?

Ez dira kantariak baina kantatu egiten dute, ez dira aktoreak baina antzeztu egiten dute, ez dira gidolariak baina gidoi bat prestatu dute... Azken batean, direna erakutsi nahi dute, entzulearen aurrean biluztuko dira: beldurretik ausardiara, burutik emoziora, gizonkeriatik gizonera, barregarri geratzetik umorera...

Ekarpen bat egin nahi diote plazari bertsoak, pianoak, akordeoiak eta gitarrak lagunduta. Beraiek bezala sentitu daitekeenaren ispilu izan nahi dute. Hain ohituak gauden isildutako egiak aitortzeko ahalegina egitera datoz, gezurrik gabe.

bertso-saioa

Azaroak 7, osteguna. 20:00

Gurutzeko Plazako Institutuko Aretu Nagusia

Bertsolariak: Maddi Sarasua, Nerea Ibarzabal, Amaia Iturriotz, Mikel Lasarte, Irati Majuelo eta Egoitz Gorosterrazu

Gai-jartzailea: Joseba Beltza

Urteak dira Bertsoaroko programazioak gazteen bertso-saioa eskaintzen duela. Kasu honetan ere, belaunaldi berriko sei bertsolari izango ditugu oholtzan. Hogei urtez azpikoak gehienak, txikitatik bertso-eskoletan ibilitakoak dira eta egun, ohiko saio, sariketa zein txapelketetan dihardutenak. Belaunaldi aldaketekin batera, emakumezkoen ahotsa gero eta ugariagoa du adierazpide honek eta bertso-saioak horretarako bide emango du. Joseba Beltzak, bertsolari zein gai-jartzaile lanetan ibilitako aurkezleak, gidatuko ditu sei gazteak.

musika emanaldia

Azaroak 12, asteartea. 20:00

Gurutzeko Plazako Institutuko Aretu Nagusia

Igelaren Banda

Bateria: Hasier Oleaga

Gitarra: Bixente Martinez

Kontrabaxua: Amaiur Cajaraville

Igelaren Banda duela dozena bat urte sortu zen eta 2000. urtean lehen diskoa atera zen. 2008an etenaldia egin ondoren, 2011tik aurrera ekin dio berriz ere taldeak, formazio berri batekin. Bixente Martinez, Hasier Oleaga eta Amaiur Cajaraville musikariek osatzen duten talde honek, musika tradizionala oinarri hartuta bertsio instrumental berriak sortzea du helburu, kantu eta dantza zaharretatik abiatuta konponketa eta harmonizazio berriak eginez.

Emanaldi instrumentala eskainiko den arren, kantuei buruzko azalpenek eta inprobisazio musikatuak osatuko dute saioa.

bertso-saioa

Azaroak 14, osteguna. 20:00

Gurutzeko Plazako Institutuko Aretu Nagusia

Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Jon Maia, Xabier Silveira, Amets Arzallus, Fredi Paia eta Julen Zelaieta

Gai-jartzailea: Ainhua Aranburu

Azken urteotan ohikoa bilakatu den bezala, Ainhua Aranburu gai-jartzaile polifazetikoak zuzenduko du Bertsoaroa zikloari amaiera emango dion saioa. Txapelketa Nagusia puri-purian dagoen honetan, 2009ko txapelduna den Maialen Lujanbio eta bi finalista, Jon Maia eta Amets Arzallus izanen dira taula gainean. Hauekin batera, azken Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalista Fredi Paia, bertsolari zirikatzailea, eta bi bertsolari nafar, Xabier Silveira eta Julen Zelaieta. Biak ala biak, Nafarroako Bertsolari Txapelketako txapeldunak eta maila handiko inprobisatzaileak. Umorea, probokazioa, hitz-korapiloak eta gaien trataera sakona izango dira bukaerako saio honen osagai.

bertsoaroa 2013

Del 24 de octubre al 14 de noviembre



Gobierno
de Navarra



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala



nafarroako
bertsozale
elkartea